

Saturnino Etxamendi Larrea
Artzibar, Nafarroa (1901)

Aurkibidea

Biografia

Artzibarko Arrieta kontzejukoa. Gurasoak ere Artzibarkoak zituen; ama Arrietakoa bertakoa eta aita Hiriberrikoa.

Zintak

AIB-002

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1982-01-01
- **Iraupena:** 8 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

AIB-007

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Data**: 1981-01-01
- **Iraupena**: 7 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Zuhaitz-txertoak

- **Erref**: AIB-002/001
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Zuhaitz-txertoen inguruko azalpenak. "Pasakak", mendiko sagar txikiak. Beste fruta-arbola batzuk.</p>

Transkripzioa

- Nere aitak, erraten tzue, anitz aldiz: "Berri in dute, alor bat? plantatu... sagarardo oetaik".

- Arbolea?

- Bai; gero, urteko... urte guziko sagarardoa izein gindue? edateko. Ta ala-ala pastu ze denbora; anaëa zarrena, arek etz(u)e... gustoik plantatzeko arbol ebetaik, daus! aita ta nik ere? beti... o lizarrak edo pasakak, gero injertatzeko... Bertzea etxego; oi? gero? sagarrak yateko bai!... temple ona.

- Pasaka, mendiko sagar ttar bat, txiki bat da?

- Sí, mendiko sagarra... ok baño txikiaok, sagarrak; pasaka deitzen gindue. Oetan, injertatu? ta... anitz ongi ematen da(g)u, fiarrao, da... arbolea. Nik? joño! olaxeko tronkoak ebaki? ta, ereki... korteza-larrua? bi aldetara? artu puga? olaxe... alde batetik bakarrik, lastatu? tä, tras! sartu gor?... lotu? tä, jode!... an errian, nornai: "Baña ik, nola injertatzen tuk? dena-da arrapa(t)zeunte!", "Bai, in tzazie ongi, zuek ere!".

- Jakin behar da, e?

- Adar... arboliak? atratzeunte, urtero, puga berriak, ta aietaik, artu? ta obenetan; artu? ta paratu...

- Injertoa...

- Bai, ortako... plantak biar du... izerditan egon, ize-... antxe artzen du segidoan e, ongi lotuik? t'an seguruan daude. An, errian, gure etxe ondoan? el de Andia... udarëak bazuela an, alako alor-, alorrean, ta... gauza txarrak kartzen zuela. "Nauk etorri? injertatzera", "Bueno", "Kartzen al duk pugak, andik", "Bai, bai, karriko tut". Segidoan, denak paratu ongi? batere etze... galditzen, bueno, galtzen; dena jartzen züte. Gero, gerexioak ere "Koño, gerexu txarrak kartzen tu, ta... torrubiau", "Ni joain naiz, bai; kartzie pugak alako... alorretik". Denak artzen züte. Orai, olaxeko gerexioak, kartzen tu.

- Gerexioak?

- Gerexioa es... la cereza; zenbait aldëz kartzen du bai, probatzera, baña justo-justo...

2. Iparraldeko artzain baten lanaldi laburra

- **Erref:** AIB-002/002
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:03:54. **Bukatu:** 00:07:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Behin Iparraldeko bi artzain etorri omen ziren Aurizberrira ardiekin, uda denboran. Bien artaldeak batu zituzten eta bietako bat Itoitzera joan omen zen lan eske, ondo irabazten zela-eta. Ez zuen denbora luzez iraun. Nagusiarekin gertatutako pasadizoa.</p>

Transkripzioa

- Bein bates, bi artzai frantsak torri zire? Aurizperriko oianetara ardiekin, uda denboran, ta, joño! biak, bi salduak juntatu batera? ta: "Orai? bah! entregu gara kui-, ardi-salduak kuidatzeko? ta bah! joaten al gara... España ortan, iazten dute? jornalak ain... onak, talluekin ta", "Bah! joan niais nik", "Bueno, bueno, goai!". Gizona jua tze... Itoitza; Itoitz ¿ya sabes?... ta an, lana eskatu? ta, "Oh, bai, zalkeak eta... eru eta oetaik badugu...".

- Zarteak eta? (gaizki ulertua guk)

- Zalkea, la... zebada y... erua le llamaban al gerón. "... or aizna al tzara, bauzu lan... zenbait eguntako", "Ta jornala?", "Bah! duro erdi bat, jornala, merezi uzu", "Bueno, bueno". Goiz-goizetik asi zen, talluekin, tzirristi-zarrasta. Gero? iruzkia atra zela(k), ongi berotzen? je! gizona losatuik beroas! an, i(t)zalean, leku fresko aetan... Joño! ezin soportatu... ño! "Aitu zu, nausia, emen ezta alako belar goxoetaik, pixkat... freskatzeko?" Gizona, nausia: "Bah! onek eztu karrera it-, inen emen, eskapatiko da; obe da eskapatzen bada emendik". Axünak, asi monton bat, je! mentzean, urbil? urbiltzeko gan? "Au bauzu belar fresko at, freskatzeko; arekin? gustorara, egoin tzära, obenien tzu". Gizona joaten da, dena buluxi? ta, itzülipurdika! narraste areki? axunein gañean ta, jode! gero ezin aguantatu... "Kartzu, kartzu... jornala, banae emendik!", "Tori, tori... zazi!". Mendira alleatu zelaik, launen ondora, tzakurra... asi men tze: aun! aun! aun! aun!... Tzakurre, tzakurra deitzen men tze... Fraxko. Gizona: "Ze, enauk ezautzen, Frexko? ba, ongi... ongi eskarmentatu emendu näiz, bai; Españaoko belar freskoak nola pikatzeunte!"...

3. Sorginkeri kontua, Zanduetan gertatua

- **Erref:** AIB-002/003
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:07:19. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Zanduetan gertatutako istorioa. Medikuak Margarita izeneko neska bat konkistatu nahi omen zuen, baina neskak ezetz esaten zion. Medikuak alde egin zuen Artzibartik. Handik laster haren sukaldean zaratak entzuten hasi ziren.</p>

Transkripzioa

- Zauntan, iruki zute(n)... mediköa, denbora batez, ta medikoa... etze gizon

ona, ez; masona nik uste ze. Ta etxean bazute... neska at ederra, Margaritza deitzen zena, ta, nai zue konkistatu ta bertzea: "Ez-ez-ez"... etzuela nai. "Ba(i)etz, baetz!"... arrekin ezkondu biar tzuela. "Nik ez, nēk ez, enaiz ezkonduko... zurekin", "Jo! oroituko zara, bai". Mediko joan tze... ordik.

- Nondik?

- Medikoa, joan tze... Artzeko balletik kanpora. Ta, beala, aren... sukaldean? Zantako sukaldean, gabas, dänna! terripiti-tarrapata... arroitu iten? ta...

- Zerk egiten zuen arroitu?

- Pues, ola, ebetaik...

- Kazolak eta...

- Kuberterak eta kazolak, denak, bron-bon-bon-pon-pon-pon!...

Etzekoandriaeki ta, gautza guziak bere lekuan. (...) Parte eman tzute

Gobernadoreingana ta, ze, nola pasten... zūten gabak, ze

arroitu iten tzuten... "Bueno, bueno, konpondiko naiz nik, obeki". Guardia

Zibilak eta, iorri, gabas... Antzeko arroituak beala ixildu ziren; e! nexkatoa,

te! trankil etxean. Ze neska ederra zen! ta aspaldian,

aspaldi illik, ilik dago.

- Ah, hori ez da kontua? hori gertatu zen?

- Ori... nesako oi nere adiñekoa edo ala, ze.

- Hori noiz gertatu zen?

- Ori, ze urtetan?

- Zenbat urte, orain zenbat urte edo zenbat urtetakoa zinen zu?

- Urteak... bederatziegun ta ogei... urtetan o ala.

- Bai, e? zu hogeitakoa edo zinelarik...

- Bai.

- Eta nork mogitzen zituen eltzeak eta kazolak eta gauza haiek? sorginkeria zen?

- Ai! eje! sorginkeriak!... majiain kontua, ordik atratzeunte.

- Baina abisua eman eta geroztik yada ez zen gehiagorik gertatu...

- Andi(k) onat eztute yagoko arroituik izen.

4. Arrieta: Eguberrietako kanta

- **Erref:** AIB-007/001
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Eguberrietan kantatzen zuten euskarazko kanta bat oroitzen du eta baita kantatu ere.</p>

5. Arrietako Eguberrietako giroaz

- **Erref:** AIB-007/002
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:02:57. **Bukatu:** 00:05:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Laburpena:

<p>Eguberrietan kantatzen zuten euskarazko gabon-kanta. Aurrekoengandik ikasi zuen.</p>

6. Errege egunaren ingurukoak Arrietan

- **Erref:** AIB-007/003
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Errege egunaren bezperako ohiturak Arrietan: karta-jokoa; ezkilak eta zintzarriak.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com